



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

**2024KO OTSAILAK 15EAN  
EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

**BERTARATUAK**

**Udalek izendaturiko ordezkariak**

**DORLETA ELKOROBARRUTIA PAGOAGA**

**LEHENDAKARIA**

**Ordezkariek**

**Udalak**

IZARO ELORZA ARREGI  
XABIER IGARTUA LOIDI  
MARKEL AZKARGORTA CID  
GARAZI ETXEBERRIA SAN MIGUEL  
KEPA URTEAGA GARCIA  
JASONE GIRALDO MENENDEZ  
MAIDER MORRAS AZPIAZU  
EDORTA ZUBIZARRETA ALEGRIA  
ARITZ IGELTZ LAZKANO  
GARIKOITZ ITURBE ETXEBARRIA  
ION ALBIZU GONZALEZ  
IBON UNZETAETXEBERRIA GALLEGO

OÑATI  
OÑATI  
BERGARA  
ARRASATE  
ARRASATE  
ARRASATE  
ARRASATE  
ESKORIATZA  
ANTZUOLA  
ARETXABALETA  
ARETXABALETA  
ELGETA

**Etorri ez direnak:**

- Gorka Artola Alberdi
- Iñigo Ruiz Barron
- Ainhoa Lete Zabaleta

Idazkaria: Leire Ucin Soraluze

Debagoieneko Mankomunitatearen egoitzan, 2024ko otsailaren 15ean, eguordiko 12:30etan, Mankomunitatea osatzen duten udalek izendaturiko **hamahiru ordezkari** bildu dira

**1.- Aurreko bilkurako akta onartzea**

Inork ez du ezer esateko aurreko aktari buruz, beraz onartutzat ematen da.





## **2.- Dekretuen berri ematea.**

Inork ez du ezer komentatzeko Dekretuei buruz.

## **3.- 2022ko Kontu Orokorra behin betikoz onartzea.**

Ikusirik 2023ko abenduaren 21ean egindako Ohiko Gobernu Juntaren bileran 2022ko Kontu Orokora behin behinekoz onartu zela.

2024ko abenduaren 28an argitaratu zen onarpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 15 eguneko epea eskainiz alegazioetarako.

Alegaziorik jaso ez da jaso. Kontu Orokorra onartzeko eskumena duen organoa Gobernu Junta da.

Puntua bozkatzen dute eta hau da emaitza:

Alde (13): Kepa Urteaga, Xabier Igartua, Markel Azkargorta, Garazi Etxeberria, Ibon Unzetabarrenetxea, Jasone Giraldo, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Aritz Igeltz, Garikoitz Iturbe, Ion Albizu, Maider Morras, Izaro Elorza.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Beraz, aho batez onartzen dute:

**LEHENA.** 2022Ko Kontu Orokorra onartzea.

**BIGARRENA.** 2022Ko Kontu Orokorra Euskadiko Kontuen Epaitegira bidaltzea fiskalizatu dezan.

## **4.- Debagoieneko Mankomunitatea eta Gizabidea Fundazioaren arteko lankidetzaren hitzarmena onartzea.**

Ikusirik Mankomunitateko ordezkari politikoen proposamena Debagoieneko Mankomunitateak Gizabidea Fundazioarekin lankidetzaren hitzarmena sinatzeko: *“ Urte beteko epealdirako hitzarmena sinatzea, energiaren eta mugikortasunaren arloetan elkarlanean jarduteko eskualde mailan. Eskualdearen trantsizio energetiko eta mugikortasun ereduaren eraldaketa bultzatzeko bidean, Mankomunitateak bultzatuko dituen ildoak D2030arekin bateratzea, horretarako antolaketa eredu bat definituz eta garatuz.”* Ikusirik idazkariaren txostena





## DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

Ikusirik 2024ko otsailaren 5ena egindako garapeneko batzordean aho batez onartu zela hitzarmena.

Proposatzen zaio Gobernu Juntari:

**LEHENEA.** Debagoieneko Mankomunitatea eta Gizabidea Fundazioaren arteko Lankidetz hitzarmena onartzea, urte baterako, eta luzagarria izan daiteke beste urte batez, bi aldeen adostasunarekin.

**BIGARRENA.** Hitzarmena sinatzen denean sartuko da indarrean.

Puntua bozkatzan dute eta hau da emaitza:

Alde (13): Kepa Urteaga, Xabier Igartua, Markel Azkargorta, Garazi Etxeberria, Ibon Unzetabarrenetxea, Jasone Giraldo, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Aritz Igeltz, Garikoitz Iturbe, Ion Albizu, Maider Morras, Iزارo Elorza.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

**Beraz, aho batez onartzen dute:**

**LEHENEA.** Debagoieneko Mankomunitatea eta Gizabidea Fundazioaren arteko Lankidetz hitzarmena onartzea, urte baterako, eta luzagarria izan daiteke beste urte batez, bi aldeen adostasunarekin.

**BIGARRENA.** Gizabidea Fundazioari erabakiaren berri ematea.

### **5.- Luis Garcia Lopez (Aholkularitza finantzarioa) ekintzaileari Arrasateko 3-ZM lokalaren baja eskaera onartzea.**

Luis García López (Aholkularitza finantzarioa) Arrasate 3-ZM.

Ekintzaileak 2022ko ekainaren 16tik erabiltzen zuen lokala (Arrasate 3-ZM) 2024ko urtarrilaren 22an laga zuen. Lokalaren egoera egiaztatu eta baja emateko prozedura guztia aurrera eramanez ondoren,

Gobernu Juntari zera proposatzen zaio:

Luis García López (Aholkularitza finantzarioa) ekintzaileari 112,71€ko fidantza itzultzea.

Puntua bozkatzan dute eta hau da emaitza:

Alde (13): Kepa Urteaga, Xabier Igartua, Markel Azkargorta, Garazi Etxeberria, Ibon Unzetabarrenetxea, Jasone Giraldo, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Aritz Igeltz, Garikoitz Iturbe, Ion Albizu, Maider Morras, Iزارo Elorza.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0





**Beraz, aho batez onartzen dute gai ordeneko 5. puntua.**

**6.- Debagoieneko Mankomunitatea eta Zabaltzen sartu Kooperatibaren arteko lankidetzaren hitzarmena onartzea.**

Zabaltzen Sartu Koop. Elkarteak, azken urteotan, Debagoienan orientazio-zerbitzu espezializatu hori ematen ari den irabazi-asmorik gabeko eta gizarte-intereseko erakundea da. Zabaltzen Sartuk, Debagoieneko Mankomunitateak orientazio-zerbitzu orokorrak eskaintzen dituen espazio berberetan, zerbitzu hori eskaintzea proposatzen du,

aurreko bi urteetan egin den bezala.

Desabantaila egoeran dauden pertsonen zuzendutako zerbitzua eta Debagoieneko Mankomunitateak eskaintzen dituen orientazio orokorreko zerbitzuak batera kokatzeak sinergiak ezartzea eta zerbitzu horiek behar dituzten herritarrei arreta integrala ematea errazten du.

Ikusirik idazkariaren txostena

Ikusirik 2024ko otsailaren 5ean egindako garapenerako batzordean aho batez onartu zela lankidetzaren hitzarmena.

Proposatzen zaio Gobernu Juntari:

**LEHENA.** Debagoieneko Mankomunitatea eta Zabaltzen Sartu, S.Koop Elkarteak hitzarmena sinatzea, 2 urteko iraupena izango du.

**BIGARRENA.** Hitzarmena sinatzen denean sartuko da indarrean.

Puntua bozkatzeko dute eta hau da emaitza:

Alde (13): Kepa Urteaga, Xabier Igartua, Markel Azkargorta, Garazi Etxeberria, Ibon Unzetabarrenetxea, Jasone Giraldo, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Aritz Igeltz, Garikoitz Iturbe, Ion Albizu, Maider Morras, Izaro Elorza.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

**Beraz, aho batez onartzen da:**

**LEHENA.** Debagoieneko Mankomunitatea eta Zabaltzen Sartu S.Koop Elkarteak hitzarmena sinatzea, 2 urteko epealdirako.

**BIGARRENA.** Zabaltzen sartu kooperatibari erabakiaren berri ematea.

**7.- ID WASTE S.L. enpresari bermea itzultzea onartzea.**

**GOBERNU JUNTARAKO IRIZPEN PROPOSAMENA**

**IKUSIRIK**

**Kontratuaren gaia, enpresa esleipenduna eta sinadura data:**

Mankomunitateak, 2020/01/21ean 10l, 40l eta 120l-ko poltsa konpostagarriz hornitzeko kontratua sinatu zuen ID WASTE S.L. enpresarekin.





**Kontratuaren iraupena:**

Kontratu honen iraupena urtebetekoa izan zen, izenpetzen den datatik hasita, eta beste 3 urte gehiagoz luzagarria, gehienez ere 4 urte bete arte.

**Aurrez egindako kontratu luzapenak:**

Kontratu hau urtez urte luzatu zen, 2023.01.21 arte. Balizko azken urterako (2024.01.21 arte) luzapena ez zen gauzatu, ID WASTE S.L. enpresak, mundu mailan izandako lehengaien prezioen gorakada nabarmena zela eta, kontratu honetan galera ekonomikoak zituztela argudiatu eta kontratua ez luzatzeko eskaera egin baitzion Mankomunitateari.

**Berme ezarpenak eta iraupena:**

Kontratu honen baitan, ID WASTE S.L. enpresak ondorengo bermeak ezarri zituen:

- 1. Lotea (10l-ko poltsa konpostagarrien hornidura): 5.280 €.
- 2. Lotea (40l-ko poltsa konpostagarrien hornidura): 1.920 €.
- 3. Lotea (120l-ko poltsa konpostagarrien hornidura): 2.380 €.

Berme hauen iraupena, horniduraz geroztik urtebetekoa da. Beraz, berme epea agortua dago.

**Kontratuaren exekuzioa:**

10l, 40l eta 120l -ko poltsen hornidura kontratua zuzentasunez eskaini zuen ID WASTE S.L. enpresak, berau arautzen zuten Administrazio Baldintza Zehatzen, Baldintza Agiri Teknikoen eta Kontratuan jasotakoa jarraituz.

**Txostenak:**

- Ingurumen Zerbitzuko arduradun teknikoaren zerbitzu txostena.
- Idazkari-kontuhartzailearen txostena.

**Ingurumen Batzordeak 2024.02.05eko ohiko-bilkuran adostutakoa:**

2024.02.05eko ohiko-bilkuran Ingurumen Batzordeko batzordekide guztiek, gai-zerrendako 5.puntuan, aho batez, ID WASTE S.L.-ak 10l, 40l eta 120l -ko poltsa konpostagarrien hornidura kontraturako jarritako bermeak itzultzea adostu dute. Aipatu guztia ikusirik, ondorengo

**PROPOSATZEN ZAIO GOBERNU JUNTARI**

**Bermea itzultzea:**

ID WASTE S.L.-ak 10l, 40l eta 120l -ko poltsa konpostagarrien hornidura kontraturako jarritako bermeak itzultzea proposatzen da.

Puntua bozkatzen dute eta hau da emaitza:

Alde (13): Kepa Urteaga, Xabier Igartua, Markel Azkargorta, Garazi Etxeberria, Ibon Unzetabarrenetxea, Jasone Giraldo, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Aritz Igeltz, Garikoitz Iturbe, Ion Albizu, Maider Morras, Iزارo Elorza.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

**Beraz, aho batez onartzen dute gai ordeneko 7. puntua.**





## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

### **8.- ALQUIENVAS S.L. enpresari bermea itzultzea onartzea.**

#### **GOBERNU JUNTARAKO IRIZPEN PROPOSAMENA**

##### **IKUSIRIK**

##### **Kontratuaren gaia, enpresa esleipenduna eta sinadura data:**

Mankomunitateak, 2020/01/21ean 60L-ko poltsa konpostagarri hornitzeko kontratua sinatu zuen ALQUI-ENVAS S.L. enpresarekin.

##### **Kontratuaren iraupena:**

Kontratu honen iraupena urtebetekoa izan zen, izenpetzen den datatik hasita, eta beste 3 urte gehiagoz luzagarria, gehienez ere 4 urte bete arte.

##### **Aurrez egindako kontratu luzapenak:**

Kontratu hau urtez urte luzatu zen, 2023.01.21 arte. Balizko azken urterako (2023.01.21 - 2024.01.21) luzapena ez zen gauzatu, ALQUIENVAS S.L. enpresak, mundu mailan izandako lehengaien prezioen gorakada nabarmena zela eta, kontratu honetan galera ekonomikoak zituztela argudiatu eta kontratua ez luzatzeko eskaera egin baitzion Mankomunitateari.

##### **Berme ezarpena eta iraupena:**

Kontratu honen baitan, ALQUIENVAS S.L. enpresak 1.080 €-ko bermea ezarri zuen. Berme hauen iraupena, horniduraz geroztik urtebetekoa da. Beraz, berme epea agortua dago.

##### **Kontratuaren exekuzioa:**

60L-ko poltsen hornidura kontratua zuzentasunez eskaini zuen ALQUIENVAS S.L. enpresak, berau arautzen zuten Administrazio Baldintza Zehatzen, Baldintza Agiri Teknikoen eta Kontratuan jasotakoa jarraituaz.

##### **Txostenak:**

- Ingurumen Zerbitzuko arduradun teknikoaren zerbitzu txostena.
- Idazkari-kontuhartzailearen txostena.

##### **Ingurumen Batzordeak 2024.02.05eko ohiko-bilkuran adostutakoa:**

2024.02.05eko ohiko-bilkuran Ingurumen Batzordeko batzordekide guztiek, gairerendako 5.puntuari, aho batez, ALQUIENVAS S.L.-ak 60L-ko poltsa konpostagarrien hornidura kontraturako jarritako bermea itzultzea adostu dute. Aipatu guztia ikusirik, ondorengoa

##### **PROPOSATZEN ZAIO GOBERNU JUNTARI**

##### **Bermea itzultzea:**

ALQUIENVAS S.L.-ak 60L-ko poltsa konpostagarrien hornidura kontraturako jarritako 1.080 €-ko bermea itzultzea proposatzen da.

Arrasaten, sinadura elektronikoa adierazitako datan  
INGURUMEN ZERBITZUKO ARDURADUN TEKNIKOA

Puntua bozkatzeko dute eta hau da emaitza:

Alde (13): Kepa Urteaga, Xabier Igartua, Markel Azkargorta, Garazi Etxeberria, Ibon Unzetabarrenetxea, Jasone Giraldo, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Aritz Igeltz, Garikoitz Iturbe, Ion Albizu, Maider Morras, Izaro Elorza.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

**Beraz, aho batez onartzen dute gai ordeneko 8. puntua.**





## **9.- Debagoieneko Mankomunitatea eta “Ayuda Contenedores” Elkartearen arteko hitzarmena onartzea.**

### **GOBERNU JUNTARAKO IRIZPEN PROPOSAMENA**

#### **IKUSIRIK**

#### **Garbiguneetatik bizikletak jaso eta helburu humanitarioetara bideratzeko AYUDA CONTENEDORES GKE-ren eskaera:**

AYUDA CONTENEDORES gobernuz kanpoko erakundeak (GKE) 2023.10.18an Mankomunitateari eskaera bat egin zion, eskualdeko garbiguneetan bildutako bizikletak jaso, hauek konpondu eta ondoren garapen bidean dauden herrialdeetara bidaltzeko.

#### **Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 legea.**

#### **Hondakinen hierarkia (8.artikulua):**

Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 legeak, 8.artikulan honela dio:

*Agintari eskudunek, hondakinen prebentzio eta kudeaketa arloan garatutako legeria eta politikak, ingurumen-eraginarekin egokiena lortzeko helburuz, hondakinen hierarkia honako ordena hau jarraituz aplikatuko dituzte:*

*a) Prebentzioa, b) berrerabiltzeko prestatzea, c) birziklatzea, d) beste balorizazio mota batzuk, balorizazio energetikoa etae) ezabapena.*

Garbiguneetako bizikletak jaso, konpondu eta helburu humanitarioetara bideratzeko ekintza, hondakinen hierarkian bigarren mailan kokatuko litzateke, hau da, “berrerabiltzeko prestatzea” atalean. Beraz, ingurumen ikuspuntutik, hondakinen sorrera prebentzioaren ondoren, sustatu beharreko lehen ekintza litzateke hondakinak berrerabiltzeko prestatzea. Hau da, Mankomunitateak hondakinen kudeaketan jasangarrirako bidean jarraitu beharreko printzipio eta helburuekin bat letorke AYUDA CONTENEDORES GKE-k egindako eskaerari bide ematea.

#### **Mankomunitateko Gobernu Juntak aurrez luzatutako izaera antzekodun baimenak (2019.04.02ko bilkura):**

Mankomunitateko Gobernu Juntak 2019.04.02ko bilkuran izaera antzekodun baimenak luzatu zizkien bi ikastetxeri. Zehazki, garbiguneetako hondakinak berrerabiltzeko baimena luzatu zitzairen Errenteriako Lanbide Heziketako Don Bosco Ikastetxeari eta Eibarko Lanbide Heziketako Eskolari.

#### **AYUDA CONTENEDORES GKE-ren eskaera onartuz gero ezarri beharreko baldintzak:**

Eskaera hau onartuz gero, hainbat baldintza ezarri beharko lirateke, besteak beste:

#### **Segurtasun baldintzak:**

oMankomunitatea ez da eskatzaileak garbiguneetan jasotako hondakinen (bizikleten) egoeraren erantzule izango. Beraz, hondakin hauek egoera txarrean edota arriskutsuan egonda ere (moztu dezaketen ertzak, etab), Debagoieneko Mankomunitateak ez du inongo erantzukizunik izango eskatzaileak izan ditzakeen balizko kalteetan.

oEskatzaileak garbiguneetan jasotako hondakinak legezko garraio baldintzetan garraiatu beharko ditu. Hala ere, eskatzaileak garraio lanetan istripuren bat izango balu, Debagoieneko Mankomunitateak ez luke istripu honekiko inongo erantzukizunik izango.

oEskatzaileak ezingo du Debagoieneko Mankomunitateko instalazioetan bertan (garbiguneetan) berrerabiltzeko prestatu nahi dituen hondakinak (bizikletarik) manipulatu (adibidez, jatorrizko hondakina desmuntatu pieza konkretu bat eramateko).





## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

### □ **Hondakinekin egingo den erabileraren baldintzak:**

oHondakin hauek berrerabiltzeko prestaketatik ezingo da inongo etekin ekonomikorik atera, konpondutako bizikletak berriz salduz. Aitzitik, berreskuratutako bizikletak helburu humanitarioetara soilik bideratu ahal izango dira.

oHondakin hauek (bizikletak) garbigunetik kanpo piezak lortzeko helburuz desmuntatuz gero, baliogarriak ez diren osagai edo zatikiei berriz ere kudeaketa egokia emango zaie, soberako zatikiak garbigune batetara bideratuz.

oKonpondu ondoren garapen bidean dauden herrialdeetara bidalitako bizikleten inguruko publizitate edota argitalpenetan, berariaz Debagoieneko Mankomunitateari proiektuan izandako parte-hartzea eskertuko zaio. Proiektu horretan beste hainbat enpresa edota erakunde ere parte hartuz gero, Debagoieneko Mankomunitatearen izena ere aipatu beharko da.

### □ **Eskatzaileen artean egongo diren lehentasunak:**

Helburu berarekin antzerako beste eskaera gehiago egongo balira eta garbiguneetan jasotako bizikleta kopurua ez balitz nahikoa izango berrerabiltzeko prestaketarako eskaera guztiei aurre egiteko, guztien artean Debagoieneko eremu geografikoan kokatutako eskatzaileek izango lukete lehentasuna.

### **Eskatzaileak hartutako konpromisoen jarraipena, zaintza eta kontrola egiteko bidea:**

Garbiguneetan jasotako bizikletak konpondu eta garapen bidean dauden herrialdeetara bideratzen direla ziurtatzeko helburuz, eskatzaileak urtero laburpen txosten bat aurkeztuko dio Debagoieneko Mankomunitateari. Laburpen txosten honetan, gutxienez ondorengo datuak jaso beharko dira (ahal den neurrian bizikleten argazkiak txertatuaz):

-Debagoieneko garbiguneetan jasotako bizikleta kopurua (garbiguneka bereiziaz).

-Debagoieneko garbiguneetan jasotako bizikleten artean, konpondu eta garapen bidean dauden herrialdeetara bidali ahal izan diren bizikleta kopurua eta euren helmuga (herrialde) zehatza.

### **Txostenak:**

-Ingurumen Zerbitzuko arduradunaren txosten teknikoa.

-Idazkariaren lege txostena.

-

### **Ingurumen Batzordeak 2024.02.05eko ohiko-bilkuran adostutakoa:**

Batzordeko Lehendakariak azaldu du, legediari jarraiki, hitzarmenak soilik behin luzatu daitekeela. Iraupena urtebetekoa izatea proposatu du, hitzarmenaren funtzionamendua egokia den baloratu ahal izateko; eta ondoren beste urtebeteko luzapen bat egiteko aukera legoke.

2024.02.05eko ohiko-bilkuran Ingurumen Batzordeko batzordekide guztiek, gai-zerrendako 4.puntuan, aho batez, garbigunetik bizikletak jaso eta helburu humanitarioetara biderateko AYUDA CONTENEDORES GKE-rekin kolaborazio-hitzaremena sinatzea adostu dute.

Aipatu guztia ikusirik, ondorengoa

### **PROPOSATZEN ZAIO GOBERNU JUNTARI**

### **Garbiguneetatik bizikletak jaso eta helburu humanitarioetara bideratzeko AYUDA CONTENEDORES GKE-rekin kolaborazio-hitzarmen bat sinatzea:**

Hitzarmen honek urtebeteko iraupena izango luke, beste urtebetez luzagarria, gehienez ere 2 urteko epea bete arte.

Puntua bozkatzen dute eta hau da emaitza:







## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Alde (13): Kepa Urteaga, Xabier Igartua, Markel Azkargorta, Garazi Etxeberria, Ibon Unzetabarrenetxea, Jasone Giraldo, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Aritz Igeltz, Garikoitz Iturbe, Ion Albizu, Mainer Morras, Izaro Elorza.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

**Beraz, aho batez onartzen dute:**

**LEHENA.** Debagoieneko Mankomunitatea eta Ayuda Contenedores GKE-rekin lankidetzaz hitzarmena onartzea, urte baterako. Hitzarmena luzagarria izan daiteke beste urte batez, gehienez ere 2 urteko epea bete arte.

**BIGARRENA.** Ayuda Contenedores GKE-ri erabakiaren berri ematea.

**10.- Hondakinak garraiatzeko zerbitzuen gomendiorako hondakinak transferitzeko puntuak zehazteari dagokionez, Debagoieneko Mankomunitatea eta GHKren arteko hitzarmena onartzea.**

### GOBERNU JUNTARAKO IRIZPEN PROPOSAMENA

Hondakinak garraioagatik ordaindu beharreko konpentsazioak arautzeko Gipuzkoako Hondakin Kontsurtzioarekin lankidetzaz hitzarmen berria sinatzeko proposamena

Esp.zk: 136/2023

### IKUSIRIK

**Mankomunitateko errefusa Elgoibarko transferentzia estaziora eramateko derrigortasuna:**

Debagoieneko Mankomunitatea 2017ko apirilaz geroztik eskualdeko errefusa GHK-k kudeatzen duen Elgoibarko transferentzia estaziora eramatera derrigortua izan da. Ordu arte, errefusa AKElko transferentzia gunean entregatzen zen.

**2021.12.22an Mankomunitateak hondakinak garraioagatik ordaindu beharreko konpentsazioak arautzeko Gipuzkoako Hondakin Kontsurtzioarekin lankidetzaz hitzarmena sinatu zuen**

**2021.12.22ko hitzarmen honen 7.puntuan honela jasotzen zen:**

1





## DEBAGOIENEO MANKOMUNITATEA

**Zazpigarrena.-** Lankidetzaren hitzarmenak sinatu ondoren, indarririk gabe geratuko da hondakinen transferentzia zerbitzuari lotutako aurretik hartutako ekimen, erabaki edo xedapen oro, Kontsorzio honek dagokion Kontsortzioko kide den Erakundearekin sinatu edo hartutako hitzarmen edo erabakietan ager daitekeena, berezitasun batekin, hau da, Debagoienako Mankomunitateak transferentziaren ondoriozko konpentsazioak jasotzeko eskubidea gauza dadin, hitzarmen honetan arautuak, martxoaren 20ko 6/2019 Foru Arautik datozenak (2019-2030 GHKPO), bi aldeen aldetik hitzarmena formalizatzea eskatuko da, eta horrek ez du ekarriko aurreko hitzarmenen ondorioz egokitu ahal zaizkien eskubideei muzin egitea.

### **Euskadiko Auzitegi Nagusiaren epaia:**

Euskadiko Auzitegi Nagusiak 2023.02.24ean GHK zigortu zuen, Mankomunitateari 139.655,2 € ordaintzera, 2017ko apirilaren 1etik 2019ko martxoaren 25 (Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 Plan Orokorra onartu zen data) arteko epeari dagokion konpentsazio ekonomikoa atzera eraginkortasunez ordaintzera.

### **2023.07.10ean Mankomunitateak GHK-k bidalitako hitzarmen berriaren proposamena:**

2023.07.10ean GHK-k Mankomunitateari hitzarmen berria sinatzeko proposamena bidali zion, 2023tik aurrerako eraginkortasunarekin. Hitzarmen proposamen berri honetan konpentsatu beharreko gastuen prezioa gorantz eguneratzen da. Horrez gain, 2021.12.22ko hitzarmenarekin alderatuz, 7.puntua honela jasotzen da:

**Zazpigarrena.-** Administrazio artekoa lankidetzaren hitzarmenak sinatu ondoren, indarririk gabe geratuko da hondakinen transferentzia zerbitzuari lotutako aurretik hartutako ekimen, erabaki edo xedapen oro, Kontsorzio honek dagokion Kontsortzioko kide den Erakundearekin sinatu edo hartutako hitzarmen edo erabakietan ager daitekeena.

Beraz, 2021.12.22ko hitzarmenarekiko Debagoieneko Mankomunitateari egiten zitzaion erreferentzia zehatza ezabatzen da. Uste da hitzarmeneko 7.puntu honen aldaketak Mankomunitateari ez liokeela kalterik eragingo, ondorengo argudioetan oinarrituz:

- 2019.03.25ean onartu zen Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 Plan Orokorra. Bertan zehaztu ziren hondakinen transferentzia puntu berriak eta kasuan





## DEBAGOIENEO MANKOMUNITATEA

kasu ordaindu beharreko konpentsazio ekonomikoak. Ondorioz, Plan honen aurreko plangintzan zehaztutako hondakinen hainbat transferentzia puntu desagertu egin ziren, besteak beste, Bergarako Epele Konpost Plantaren ondoan eraiki zen errefusaren transferentzia gunea; eta hori dela eta, konpentsazio ekonomiko ezberdinak finkatu zitzaizkien Mankomunitateei.

- Euskadiko Auzitegi Nagusiak dagoeneko Mankomunitatearen aldeko epaia ebatzi zuen 2023.02.24ean, GHK zigortuaz Mankomunitatea 139.655,2 €-ko zenbatekoarekin indemnitzatzen.

### **Txostenak:**

-Mankomunitateko Ingurumen Zerbitzuko arduradun teknikoaren txostena.

-Idazkariaren lege txostena.

-6/2019 Foru Araua, martxoaren 20koa, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 Plan Orokorra.

-2021.12.22ko GHK eta Mankomunitatearen arteko hitzarmena.

-2023.02.24ko Euskadiko Auzitegi Nagusiaren epaia.

-2023.07.10ean GHK-k Mankomunitateari bidalitako hitzarmen proposamena.

### **Ingurumen Batzordeak 2024.02.05eko ohiko-bilkuran adostutakoa:**

2024.02.05eko ohiko-bilkuran Ingurumen Batzordeko batzordekide guztiek, gaitzerrendako 2.puntuari, aho batez, hondakinen garraioetatik ordaindu beharreko konpentsazioak arautzeko Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioarekin lankidetzaren hitzarmen berria sinatzea adostu dute.

## **PROPOSATZEN ZAIO GOBERNU JUNTARI**

**Hondakinen garraioetatik ordaindu beharreko konpentsazioak arautzeko Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioarekin lankidetzaren hitzarmen berria sinatzea:**

Hitzarmen honek 2023tik aurrerako eraginkortasuna izango luke. Bere iraupena 4 urtekoa izango da, beste 4 urtez luzagarria, bi aldeak ados badaude.

Puntua bozkatzen dute eta hau da emaitza:

Alde (13): Kepa Urteaga, Xabier Igartua, Markel Azkargorta, Garazi Etxeberria, Ibon Unzetabarrenetxea, Jasone Giraldo, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Aritz Igeltz, Garikoitz Iturbe, Ion Albizu, Maider Morras, Iزارo Elorza.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

**Ondorioz, aho batez onartzen da Debagoieneko Mankomunitateak hondakinen garraioetatik ordaindu beharreko konpentsazioak arautzeko Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioarekin lankidetzaren hitzarmen berria sinatzea, 4 urterako.**





### **11.- Hobeki elkartera eskatutako atxikimenduari buruzko informazioa.**

Mankomunitateko lehendakariak hartzen du hitza: dio aurreko hileko Gobernu Juntan erabaki zela Hobeki Elkartera atxikitzea. Gauza da Hobeki Elkarteko arduradunak komentatu diola Estatutuak aldatu behar dituztela, ez baitaie interesatzen Mankomunitateak atxikitzea Elkartera, Udalak baizik.

### **12.- Epele zaborte giko egoerari buruzko informazioa ematea.**

Mankomunitateko ingurumeneko arduradun teknikoa eta ustiaeneko arduraduna, Maddi Altuna eta Luis Lonbide Gobernu Juntara bertaratzen dira Epele zaborte gikari buruzko egoera teknikoa azaltzera.

### **13.- Galdera eskaerak.**

Ez dago.

Bilera bukatutzat ematen da 13:30etan, eta akta honetan jasotzen dira bertan hartutako erabakiak, dagozkion efektuetarako.

Arrasaten, 2024ko otsailaren 15ean.

**Lehendakaria**

**Idazkari-kontuhartzailea**

